

INGENIARITZAKO NIRE LEHEN PROIEKTUA: NIRE ENPRESARI SOLUZIO BERRITZAILEAK EGITEN

- **Ezaguera adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Gipuzkoa
- **Ikastegia:** Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskola IMH - Elgoibar (atxikitutako ikastegia)
- **Gradua:** Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritza
- **Arduraduna:** Itziar Egiguren

1. PROIEKTUAREN LABURPENA

Proiektu erreal baten analisisa eta garapena praktikan jartzean datza. Proiektua enpresan sortutakoa izango da eta osagai bat fabrikatzea suposatuko du; baita proiektuan zehar sortzen joango diren arazoei aurre egitea ere. Horretarako egingo dena honakoa izango da:

- Enpresan dagoen egoera-arazoa aztertu.
- Eskatutako pieza diseinatu CAD/CAM softwarearen bidez.
- Diseinuaren prototipoa, 3D inprimagailuan.
- Piezaren fabrikazioa, amaitu arte.
- Txartel programagarri baten aukerak aztertu.
- Programazioaren eremua ikasi.
- Zirkuitoa muntatu eta garatu.

2. HELBURUAK

Proposatutako programa Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa da, Batxilergokoentzat eta Lanbide Heziketako Goi Mailako Heziketa Zikloetakoentzat. Helburu nagusia da ingeniaritza dualaren dinamika azaltzea, eta baita erakustea, adibide praktiko baten bidez, Graduan jasotako ezagutzak enpresaren proiektu erreletan aplikagarriak direla.

Hortaz, ikasleek ingurune-industrialean kokatu ahal izango dute beraien burua:

- Krokisak egiten.
- Diseinatzen.
- Prototipatzen.
- Ekoizten.
- Programatzen.
- Muntatzen.

3. LANDUKO DIREN GAIAK EDO/ETA EDUKIAK

- Enpresan sortutako arazoaren aurrean litekeen soluzio desberdinak landu.
- Krokisak egin eta diseinatu software egokiaren bidez.
- Modelatua 3D inprimagailuaren bidez.
- Mekanizazio aukerak ikusi.
- Hardwarea garatzeko plaka bat erabiltzen ikasi.

4. IKASLE PARTE HARTZAILEEKIN EGINGO DIREN EKINTZAK

Ikasleak aktiboki parte hartuko du enpresak proposatutako proiektu erreal batean, non arazo bat dagoen, eta soluzio egokia aurkitu beharko du, berrikuntzan eta ezagutza zientifikoetan oinarrituz. Praktika egiteko landuko diren ekintzak aurreko atalean azaltzen dira.

5. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2019ko urtarrilak 21	Gaztelania	Goizez	9:00-12:00	20
2019ko urtarrilak 22	Gaztelania	Arratsaldez	15:00-18:00	20
2019ko urtarrilak 28	Euskara	Arratsaldez	15:00-18:00	20
2019ko urtarrilak 29	Euskara	Goizez	9:00-12:00	20